

22/12 IRIZPENA

Maite Alonso, presidentea
Begoña Cabria
Lierni Lizaso
Mari Tere Ojanguren
Idoia Pujana
Eduardo Ubieta
Eva Blanco, idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2022eko urriaren 27ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko irizpena: **Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan, Helduen Hezkuntzan, Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutuan eta EAeko Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzetan maisu-maistrentzat gordetako lanpostuen zerrendak onartzen dituen dekretu-proiektuari buruzkoa.**

I. AURREKARIAK

EAeko unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzako irakasleen kidegoei buruzko otsailaren 19ko 2/1993 Legeak lanpostuen zerrendak arautzen ditu II. tituluaren I. kapituluan, irakaskuntzako funtzio publikoaren egitura eta antolaketari buruzkoan; zerrenda horien oinarritzko printzipioak adierazten ditu, baita zerrendak egiteko jarraitu beharreko prozedurak ere.

Parametro hauek identifikatzen dituzte dekretu honi erantsitako zerrendetan azaltzen diren lanpostuak: espezialitatea, hizkuntza-eskakizuna eta derrigortasuna. Hizkuntza-eskakizunak hizkuntza-ereduen arabera zehazten dira, martxoaren 9ko 47/1993 Dekretuan (apirilaren 2ko EHAA) ezarritako proportziak beteta; dekretu hori urtarrilaren 18ko 6/2000 Dekretuak aldatu zuen (urtarrilaren 20ko EHAA), eta arautu egin zuen nola dekretu hori irakasleen lanpostuei. Helduen ikastetxeetako lanpostuei hizkuntza-eskakizunak jartzeko, uztailaren 23ko 182/2002 Dekretuan ezarritako irizpideak jarraitu dira.

II. EDUKIA

Dekretu proiektu honek 4 artikulua, 10 xedapen gehigarri, bi azkenak eta 6 eranskin ditu.

1. artikulua Bilboko CEIP Mina del Morro HLHI kentzen du.

2. artikulua I.etik VI.era bitarteko eranskinetan jasotako lanpostu zerrendak (LPZ) onartzen ditu.

3. artikulua irakasle ibiltariei buruzkoa da eta eta 4. artikulua ezarri duenez, lekualdatze-lehiaketa da lanpostuak betetzeko sistema, eta berariazko lehiaketa berezizat jotako lanpostuena.

Lehenengotik zazpigarrenerako xedapen gehigarriek soldaten osagarri orokorrak eta kargu eta erantzukizunen arabera esleitutakoak jasotzen dituzte. Zortzigarren xedapen gehigarriak euskarazko irakaskuntza-espezialitateko lanpostuak lortzeko baldintzak jasotzen ditu eta bederatzigarrenak Lehen Hezkuntzako aholkulari-postua eskuratzeko baldintzak. Hamargarren xedapen gehigarriak zehazten du postu guztietarako behar dela sexu-askatasun eta sexu-ukigabetasunaren aurkako delituren bategatik epai irmoz kondenatuta ez egotearen ziurtagiria, Adin txikikoen Babeserako Legearekin bat etorritz.

Azken lehen xedapena errekurtsioak jartzeari buruzkoa da, eta bigarrenak esaten du noiz sartuko den Dekretua indarrean.

III.- PLANTILLEN ANALISIA

Dekretu-proiektu honetan lantzen diren maisu-maistren kidegoko lanpostu-zerrendek (LPZ) Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Helduen Hezkuntza Iraunkorreko (HHE) ikastetxe publikoei, Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutuari, lurralde-ordezkaritzetako lanpostuei eta erlijio katoliko eta islamikoko irakasleen lanpostuei eragiten diete.

Aurreko ikasturtean baino 91 plaza gutxiago daude lanpostuen zerrenda horietan. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan 895 plaza gehiago daude, eta 883 lanpostu gutxiago lurralde-ordezkaritzetan. Gainera, 43 plaza gutxiago daude HHEko ikastetxeetan.

Erljio katolikoko irakasleen plazak 59 gutxiago izan dira, eta erlijio islamikokoak 4tan mantentzen dira.

Urrutiko Hezkuntzako Euskal Institutuko (UHEI) plaza 1 jaitsi da. Lanpostu horiek guztiak bereziak dira, 3 izan ezik, desagertzeaz daudenak.

Justifikatuta dago plaza horiek bereziak izatea, urrutiko irakaskuntzak ikasteko ingurune birtual bat eskatzen duelako, hezkuntza-plataforma batez edo gehiagoz osatua, eta ingurune horretako kideen arteko komunikazioa, elkarlana, jardueren bidalketa eta ebaluazioa, jarduera elkarreragileen autozuzenketa, erabiltzaileen jardueraren jarraipena, ebaluazio-mekanismo eraginkorren erabilera eta abar ahalbidetzen dituenak.

Baldintza horiek guztiek justifikatzen dute UHEIri atxikitako plazak bereziak izatea, bai eta berariazko hornidura-metodo bat ere. Hala ere, lanpostu batzuk ohikotzat hartzen dira UHEIn integratu diren UOHEIko irakasleak atxiki ahal izateko, baina desagertu egingo dira, eta pixkanaka plaza bereziekin ordezkatu dira.

LPZ organikoetako maisu-maistren plazak, jomuga motaren arabera. 2021-22 eta 2022-23

<i>Jomugak</i>	2021-22	2022-23	Δ Azken ikasturtea
Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako postuak	8.663	9.558	895
Erlijio katolikoko irakasle postuak	149	90	-59
Erlijio islamikoko irakasle postuak	4	4	0
HHE ikastetxeetako postuak	338	295	-43
UHEI	9	8	-1
Lurralde Ordezkarizetako postuak	962	79	-883
LPZ organikoa guztira	10.125	10.034	-91

Lurralde-ordezkarizetako lanpostuak, aurreko ikasturteetan ez bezala, logopeden lanpostuak baino ez dira jaso, eta 84 plazatik 79ra jaitsi dira. Logopeda irakasleek beren lana modu ibiltarian egiten dute, beharra sortzen den ikastetxetara joanez, eta lurralde-ordezkaritza bakoitza arduratzen da eginkizunak betetzen dituztela gainbegiratzeaz eta kontrolatzeaz, zereginak esleituz eta lan egiten duten ikastetxeak esleituz. 2021-22ko LPZn, gainera, laneko arriskuen prebentzioko 839 lanpostu, kulturartekotasuneko 5 lanpostu eta Eleaniztasunerantz programako 34 lanpostu agertzen ziren. LPZ honetan, lanpostu horiek zeregin horiek egiten dituen irakaslearen espezialitatei esleitzen zaizkie.

Espezialitatei dagokienez, lanpostu gehiago jarri dira espezialitate guztietan, baina, taulan ikus daitekeenez, desagertu egin dira ikastetxeak moldatutako lanpostuak, eta zuzendaritza-taldeetako kide den edo berrikuntza-programak garatzen dituen irakaslearen espezialitateari esleitu zaizkio.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako maisu-maistren kidegoko LPZ organikoko espezialitateak. 2021-22 eta 2022-23 ikasturteak.

<i>Jomugak</i>	2021-22	2022-23	Δ Azken ikasturtea
Haur Hezkuntza	2.279	2.570	291
Lehen Hezkuntza	3.464	4.178	714
Euskara	14	15	1
Ingelesa	579	682	103
Gorputz Hezkuntza	350	417	67
Musika	274	340	66
Aholkularia	271	356	85
Pedagogia Terapeutikoa (PTE)	694	871	137
Entzumena eta Lengoaia (ALE)	159	169	10
Ikastetxeak Moldatutako Lanpostuak (IML)	579	0	-579
LPZ organikoa guztira	8.663	9.558	895

Berritasun gisa, LPZ honetan plantilla organikotzat hartzen dira lanaldi osoko lanpostu guztiak; jarraian, plantilla osagarriaren datuak jasotzen ditugu, osatu gabeko plaza dagozkienak, espezialitatearen eta lanaldi motaren arabera sailkatuta, hau da, 463,82 lanpostu lanaldi osoan.

Hezkuntzako ikastetxe publikoetako maisu-maistren kidegoko LPZ osagarriaren espezialitateak Haur eta Lehen Hezkuntza, lanaldi motaren arabera. 2022-23 ikasturtea

<i>Jomuga</i>	<i>Lanaldi 5/6</i>	<i>Lanaldi 2/3</i>	<i>Lanaldi 1/2</i>	<i>Lanaldi 1/3</i>	<i>Lanaldi 100%</i>
Haur Hezkuntza	17	6	142	21	96,0
Lehen Hezkuntza	21	17	105	34	92,4
Euskara			1	0	0,5
Ingelesa	21	15	76	16	70,6
Gorputz Hezkuntza	14	8	76	21	61,8
Musika	15	10	69	16	58,8
Aholkularia	5	3	21	2	17,3
Pedagogia Terapeutikoa	4	9	103	9	63,7
Entzumena eta Lengoaia		1	4		2,7
LZP guztira	97	69	597	119	882
%100 lanaldia	80,51	45,54	298,5	39,27	463,82

Plantilla organikoaren **euskalduntzeari** dagokionez, handitu egin da 2. HE duten irakasleen ehunekoa, % 99,16ra iritsi baita Haur eta Lehen Hezkuntzako lanpostuetan. HHEko irakasleen artean ere 5 puntuko igoera izan da aurten. UHEIko lanpostu guztiek, 1 izan ezik, HE2 dute esleituta (% 87,5), baita erlijio katolikoko lanpostuen % 95,6 eta Ordezkaritzetako entzumen eta hizkuntzako lanpostuen % 98,7 ere. Erlijio islamikoko bi irakaslek 1. HE dituzte eta beste biek 2. HE dituzte, eta guztiek ez dute derrigortasun-datarik.

Maisu-maistren kidegoko plantilla organikoetan HE2 esleituta duten plazen portzentajea, ikastetxe edo jomuga motaren arabera. 2020-21 eta 2021-22 ikasturteak.

		2021-22	2022-23	Azken ikasturtea
Haur eta Lehen Hezkuntza	2HErekin	8.579	9.478	899
	Guztira	8.663	9.558	895
	2HE	99,03%	99,16%	0,13
HHE	2HErekin	286	266	-20
	Guztira	337	295	-42
	2HE	84,9	90,22	5,32

Lehen esan bezala, plantilla osagarria deritzogun plazak, hala nola eskolaz kanpokoak, jantokia, HII, PT edo ordutegi-hondarrak dituzten beste batzuk, orain lan egiten duen irakaslearen espezialitateari esleituta agertzen dira.

Hala ere, plantilla osoa aurreko ikasturtekoarekin konpara dezakegu. Ikasturte honetan, lehen aipatutako 463,82 plaza daude lanaldi ez-osoetarako, eta Lurralde Ordezkaritzetako 79 logopeda.

Ondorioz, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen funtzionamenduko plantillan 10.101 irakasle daude, aurreko ikasturtean baino 415 gehiago.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako funtzionamendu plantillen bilakaera. 2021-22 eta 2022-23 ikasturteak.

	2021-22	2022-23	Δ Azken ikasturtea
LPZ organikoa	8.663	9.558	895
Plantilla osagarria	1.023	543	480
Funtzionamenduko LPZ	9.686	10.101	415

Plantilla osoa ikastetxe horietan matrikulatutako ikasle kopuruaren murrizketarekin (82 gela eta aurreko ikasturtean baino 2.249 gutxiago) alderatuz gero, ratio guztiak hobetzen dira. Handitu egin da ikasgelako irakasleen ratioa (1,84), eta jaitsi ikasgela bakoitzeko ikasleena (17,84) eta irakasle bakoitzeko ikasleena (9,7).

Ikasle, irakasle eta unitateen eta horiei dagozkien ratioen bilakaera Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan 2021-22 eta 2022-23 ikasturteetan.

Iraileko matrikularen datuak		2020-21	2021-22	Δ Azken ikasturtea	
Unitateak edo ikasgelak	Haur Hezkuntza, 2 urte	574	575	1	%0,2
	Haur Hezkuntza, 2. zikloa	1.531	1.492	-39	%-2,5
	Lehen Hezkuntza	3.420	3.368	-52	%-1,5
	Hezkuntza Bereziko ikasgela egonkorak	48	56	8	%16,7
	Unitateak guztira	5.573	5.491	-82	%-1,5
Ikasleak	Haur Hezkuntza, 2 urte	7.542	7.242	-300	%-4,0
	Haur Hezkuntza, 2. zikloa	27.240	26.205	-1.035	%-3,8
	Lehen Hezkuntza	65.222	64.294	-928	%-1,4
	H. Berezikoko gela egonkorak	219	233	14	%6,4
	Ikasleak guztira	100.223	97.974	-2.249	%-2,2
Irakasleak: funtzionamendu plantilla		9.686	10.101	415	% 4,3
Irakasle / ikasgela ratioa		1,74	1,84	0,1	
Ikasle / ikasgela ratioa (1)		17,98	17,84	-0,14	
Ikasle / irakasle ratioa		10,35	9,70	-0,65	

III. BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Lehenik eta behin, LPZ berriaren balorazio positiboa egiten dugu. Bertan, LPZ organikoan lanaldi osoko lanpostu guztiak sartzen dira.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako plantilla organikoak plantilla organikoan 895 plaza gehiago daude, eta Helduen Hezkuntzan 43 plaza gutxiago.

Funtzionamenduko plantillari dagokionez, 415 plaza gehiago daude.

Kontuan hartuta 82 unitate gutxiago eta 2.249 ikasle gutxiago daudela, uste dugu ratioak mantentzen direla hobekuntza txikiekin.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbo, 2022ko urriaren 27a

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

PRESIDENTEA

Sin.: Maite Alonso Arana

HEZKUNTZA SAILBURU JAUNA